

2015eko Pazko astelehena -- Saran Idazleen biltzarra

Bahnar deitu Salbaiak

Pierre Dourisbouren lana Jean Elissalde euskararat itzulia

Hona beraz Euskaltzaindiak nahi izan duela berriz argitaratu “**Bahnar deitu Salbaiak**” Jean Elissalde ‘Zerbitzari’ idazlearena.

Itzulpen lana dugu hau 1929an egina. Jatorrizkoa “*Les Sauvages Bahnars, Souvenirs d’un missionnaire*”, Pierre Dourisboure misionest beskoiztarrak idatzia, bere apezpikuak galdaturik. Lehen edizioa 1870ekoa da baina geroztik berredizio andana izan du.

Lehen-lehenik erran dezagun “Salbaiak” izendatze horrek gure gaurko beharriak jotzen dituela eta nihaurenak ere jo zituela, egia erran. Baina noizbait ohartu nintzen ez zela mespretxuzko hitza, ez bada ere laudoriozkoa, hots, denbora haietako izendatze bat zela Asiako edo Afrikako jende xeheaz hitz egitean. Are hobeki onartu nuen irakurri nuelarik, Dourisboure beraren hitzetan, nahiago zuela ‘salbaien’ artean bizi, Saïgon hiri europartuan baino.

Bada bertze arazo larriago bat gai honen inguruan: misionesten eta kolonialisten arteko harremanak, hain goraki, barnago behatu gabe, gaitzesten direnak.

Laburbilduz erran daiteke gehienetan, misionestak direla joan, lehenik, beren sinestea hedatzeko leku urrun eta osoki arrotzetaraino. Ordea, jendartearen kudeantza zibila berek ezin eginez-edo, misionestek berek, batzuetan, eskatu dute botere publikoaren laguntza.

Adibidez, Lavigerie apezpiku baionesak, Afrikatik egin deia Frantziako barne-ministroari, 1880an. Hauxe idazten dio: “Afrika beltz gehiengan zabalduak gara, diozesak jadanik finkatuak ditugu Aita Sainduaren baimenarekin. Ordu da Frantziak bere parte egin dezan, bertzela ingelesen, alemanek eta belgikanoek berenganatuko dituzte eremu hauek guziak jadanik hasiak diren bezala.”

Alta, gure baiones famatuak, galdatuko die bere misionestei: “Janen duzue, beztituko eta mintzatuko zarezte tokiko jendea bezala!”

Eta are gehiago eginen du 1888an, gora-gora mintzatuko baita esklabotasunaren kontra eta hobekuntza batzuk erdietsiko ere menperatuen alde.

Bertze kasu batzuetan berriz lanjer izigarrien erdian gertaturik, armada deitu izan da salbatzaile gisa eta, holaxe, emeki-emeki, gizonak eta erresuma handiek berezkoa duten konkistatzeko gogoia lagun, hastapeneko xede ona erori da, askotan, kontzientziarik gabeko kolonialisten eskuetarat.

Ondorioak ez dira ahanziak.

Daukagu, guziengatik, Dourisboure bezalako misionestek gure miresmena hartze dutela. Jean Etcheparek ere, zirika zenbait gorabehera,

ederki azaltzen digu, ‘Misionestaren ezteiak’ deitu artikuluan, Jean Chabagno baten fede eta bertute ezin sinetsia!

Vietnametik Estatu frantsesak joan behar izan du, baina misionesten lanak segitzen du, gaurko egunean ere, arrakasta ederrarekin, mundu berriztatzaile gisa agertzen baita han, egungo egunean, giristinotasuna.

Boli Kostan, 50 urte honetan gaitzeko saila darama Janine Sein senpenter serorak, bertzeak bertze, bere herritarren laguntzarekin. Askotan entzuten du jende xehearengandik: Noiz bukatzen da independentzia?! Ez ote doa hori ere misionesten lanaren alde?

Anitz misionest jalgi da Euskal Herritik. “La Croix”, frantses egunkariak zioen, joan den martxoaren 27an hain xuxen: Euskaldunak sortzez dira misionest! Eta izendatzen ditu: San Frantses Xabierrekoa bistan da, Lavigerie gorago izendatu duguna, Mixel Garicoitz, Mixel Cartateguy eta abar.

Ez genuke ahortzi nahi Jean-Baptiste Etcharren Irulegikoa hamar bat urtez Asia guziko misionesten buru egona eta xehetasun batzuen biltzen lagundu nauena! Artetik errateko, apez honek eta bertze batzuek garbiki aitortzen dute Dourisbouren eragina beren bokazionean.

Beha dezagun, Historian zehar, euskaldun batzuek Ameriketara egin balentriei edo gure lehengo itsasturien kalipu ikaragarriari: bizi beharrak bultzaturik, arpoi txar bat eskuan, baleei oldartzeraino zihoazelarik!

Eta gure misionesten urrunerat joateko fede sutsu horren sustraiak ez ote dira azkenean bertsuak?

Pierre Lhandek erraten digu ‘L’inquiétude atavique’, sortzekoa dukegun grina hori, dela euskaldunen lehia horren oinarrian. Biziki gustukoa dut iritzi hori. Funtsean, Lhande bera ere ez ote da, irratiz Ebanjelioa hedatzeko ausartzia ukan duen lehena?

Eta gaurko euskaltzale-abertzaleen engaiamendu suharra bezain osoa, ez ote da heldu hura ere ‘labe’ beretik, ez helburuetan, baina moldez: hainbertze sailetan “Ezina ariz egina” doazelarik joan den martxoko emaitza batzuek tartean?

Oharpen eztabaidagarri horien ondotik itzul gaitezen Dourisboure berarenganat. Beskoitzen sortua zen (Lapurdi) 1825eko buruilaren 19an. Izen osoa Pierre Janvier Dourisboure Etcheberry. Oraingo Vietnam hegoaldean 40 bat urte eramanik —Pariseko egonaldi bat tartean— zendu zen, leher egina gibelerat heldu zelarik, Marseillan 1890ean.

Gazterik sentitu zuen misionest izateko deia eta Pariseko ‘*Missions Etrangères*’ deitu seminario famatuan sartuko da 21 urtetan eta apez tuko ere hor berean 3 urteren buruko. Berehala eta lorietan abiatuko da bere buruzagiek hautatu eskualderat eta, urez sei hilabeteko bidaia gogorra eginik, bahnartarren erdian kausituko da.

Haiekin iraganen dituen lehen 20 urteetan, gose, egarri, eritasun eta aihergoetan lortuko du hango elizaren sortzea, hemengo baten

osagarriarentzat, izan zitekeen arorik txarrean, animalia basa eta munduko pertsekuzio latzenen arriskuan...

Xehetasun batzuk. Bide harriztaturik ez, gudrunaturik are gutiago! Ibaiak asko baina zubirik ez. Behin baino gehiagotan, ibaiak trebesatzean, urak eraman izan du Dourisboure, halarik ere beti atera da nolabait, Jainkoaren laguntzaz, berak dioenez.

Bahnartarrak, oihan beltz eta hezeen erdian bizi ziren, mugarik gabeko eremuetan, askotan elkarren etsai zebiltzan leinuka bildurik. Harat joaten ziren europar gazteak, “oihaneko sukarrak” (paludismoak) errausten zituen.

Ikus orain jatekoak: iratze hosto guriak, banbu hostoak, irris idorra... Eta haragia: zakur, gatu, suge, sagu, arratoi, har, musker, apo, bai bai apoak ere jaten zituzten larraturik, axalean duten pozoia kentzeko. Gosete egiazkorik ez, ordea, oihan aberatsari esker.

Dourisboure bera baino lehenago han gaindi ibili direnak, halaber geroago laguntzerat joanen zaizkionak, hilen dira denbora guti barne. Dourisbourek ere anitz erialdi gaudituko ditu eta gutik egin du ez baita lehenago zendu!

Eta, hain xuxen, iraupen arraro horretarik aterako da eta zabalduko haren omena bazter guzietarat. Euskal Herrian, haren ‘balentria sainduak’ aipatzen zizkiguten, haurrean, misionest bokazionea gu baitan piztu nahiz zebiltzanek...

1870ean Pariserat igorri zuten indarberritzerat eta orduan bukatu zuen, bortz urte lehenago hasia zuen lana ***“Les Sauvages Bahnars, Souvenirs d’un missionnaire”***.

Liburua idatzi ondoan, berriz itzuli zen bere aitzineko lekurat. Bigarren egonaldi hau erosoagoa eta emankorragoa gertatuko zaio. Giristinoak beti emendatzen ari zitzaizkion eta, azkenean, errotik onartu zuten, beren arteko buruzagi bilakatzerraino!

Doi-doia xutik ibilki zela, 1885ean sartu zen Hong-Kong-eko misionesten erietxean eta bere gaitz guzien artetik, egundainokotan, bizpahiru urtez burutuko du, 30 urte lehenago hasi hiztegi miresgarria eta inprimaraziko 1889an, hil aitzineko urtean beraz.

“Bahnar deitu Salbaiak” itzulpen honen egilea: Jean Elissalde apeza, 1883an sortua Azkainen eta zendua Gerezetan 1961ean.

Euskal idazle ezaguna eta guziz emankorra; bere artikuluak “Zerbitzari” izenpetzen zituen baina erabili izan du ere bertze izenorderik ere, hala nola: ‘Azkaindarra’, ‘Bilharia’ eta abar.

‘Eskualduna’ kazetan idatzi zuen. 14ko Gerla Handia ere egin, sutik berriak igortzen zituela.

Eskualtzaleen Biltzarreko idazkari sartu zen 1921ean.

Ehunka ‘Atsotitz’, ‘Zuhur-hitz’ eta ‘Erran-zahar’ bildu zituen.

Euskararat itzuli zituen asko lan; bertzeak bertze: ‘Ichtorio Saindua’, ‘Testament Zaharra’, ‘Jesu-Kristo’, ‘Eliza’, ‘Katichima’, ‘Ama Maria Pasionekoa’, ‘San Frantses’ [Xabierrekoa] eta oroz gainetik hemen interesatzen zaigun... “Bahnar deithu Salbaiak”!

Bertso parrasta bat ere idatzi zuen, hots, obra erraldoia oro har. Ez da harritzeko beraz euskaltzain oso izendatu bazuten 1930ean.

Liburu itzulpen hau Lapurdiko euskaran egin lan eder bat dugu eta jadanik horren irakurtzeko gogoia piztu dizuedalako esperantzan nago...

Batzuek lehenagoko petralkeriak dituzte beti lumapean gaurko begiz jujatzen dituztela. Historiaren ezagutzea beharrezkoa bada ere, gure xedea da arbasoen urrats baliosenei leku gehiago ematea. Euskal Herria eraikitzeko bide aise emankorragoa dela baitaukagu.

Milesker Euskaltzaindiari, Euskararen Erakunde Publikoari eta zuei ere bai, Jaun Andereak, hortxeko entzule eta sarriko irakurle izanen zaretenei.

2015-04-06 Henri Duhau